

# Bihotz bi: Gerrako kronikak

## Markos Zapiain

"Lisboako setioaren historia"  
Jose Saramago  
euskaratzailea: Jon Alonso  
Ibaizabal, 1999

Raimundo Silva, berrogeita hamar urteko mutilzahar lotsati goibela, zuzentzaile dabil argitaletxe batean, putez eta ezkutuko ile-tindatzez atonduriko menpekoen bizimodua daramala, argitaletxearen eta idazleen menpeko, baina Maria neskamearen nagusi. (Etengabe nabaritzen ditu Saramagok aginte harreman funtsean ekonomikoak.) Halako batean, *Lisboako setioaren historia* zuzentzea egokitu zaio, eta beti jakintzat hartu izan dena, Britannica-k dakarrena, gurutzatuek portugaldarrei, mairuak hainbat mendez bizitako Lisboa setiatzen eta bereganatzen lagundu zietela alegia, aldatu egiten du, gurata. Gurutzatuek EZ zieten on Afonsoren osteei lagundu, dio orain Raimundoren Historiak. Berebiziko ekintza burutu du: Portugalen historia aldatzeaz gainera, nagusiei, argitaletxeari, historialariari, eta batez ere bere izaera-bizimoduei esan die ez, ez eta ez, Satanek, Eva-Adanek, Espartakok zein Marxek bezala, hurrenez hurren eta besteak beste. Ezetza absurdua da, arriskutsua, ulertezina; ondorioak ezezagunak zaizkio. Beldur da Raimundo, artega.

Argitaletxeko gizonezko buruzagiengandik iharduki bortitza pairatzen du, zemaia eta aitakeria urduria. Baina "ez" bitxi horrek Raimundoren nagusi Maria Silva doktorearen arreta pizten du. Maitemindu egiten dira. Mariak gurutzatuek portugaldarrei lagundu ez zieten Lisboako setioaren historia idazteko eskatzen dio. Raimundok ez du aurrerantzean ilea tindatuko, ahanzi egingo ditu putak, sortzaile da bilakatuko.

Saramagoren *Lisboako setioaren historia*-k, hortaz, barruan dauka Raimundo Silvaren *Lisboako setioaren historia*. Raimundo eta Mariaren maitasuna, Raimundoren liburuko Mogueime soldadu portugaldararen eta Ouroana, zaldun baten ohaidearen artekoak islatuko du. Raimundoren liburuan mairuak babesten dituzten Lisboako harresiak suntsitu ahala, desagertu egingo dira Raimundo eta Mariaren arteko harresiak, gerraren hondamenditik maitasuna irtengo da garaile. 1989an argitaratu zuen Saramagok liburu hau. Laurogeita hamarreko hamarraldian nabarmen ilundu da gizakien gaineko bere ikuspuntua, Saramagoren bihotzean itxaropenarenak egin du honezkero.

*Setioa*-n, harira, narratzaile orojakileak, esaldi oparo, kakotx eta menpekoz josi, hainbat orrialde betetzera iristen den, bakoitzaren baitan, bidaia ikusgarriak egin ditzake setioa ezarri 1147tik egungo Lisboaraino, Raimundoren gogotik on Afonso Errege setiatzailearenera, orduko neskatxa mairua eta oraingo neskatxa ijitoa bildu, gurutzatuak eta turistak, gaurko Lisboan orduko aztarnak bilatu, historian zehar aldagaitz dirauena hobeki nabarmentzearen: agintea, maitasuna, zakurra, mairuek eta kristauek elkar iraintzeko bere izena oihukatzen duten bitartean mutu dirauen zakurra. Lisboako deskripzioak zen margolanak bezain delikatu eta hunkigarriak dira.

Pasarterik barregarrienak Elizako historialarien parodiak dira. Saramago, egiazalea baita, beti dabil liskarturik Vatikanoarekin, erlijioei ez die barkatzen gerrarik ankerrenak

eragitea. Saminki azpimarratzen du gerrok soldaduen eta zuloen arteko harremanetan erabakitzen direla: hobiak zabaldu, hildakoak hartzeko; emakumeak ireki, biziak hartzeko.

Alabaina, Saramagok, ostera ere eskuzabal, Elizaren aurkako bere gurutzada gogorra gorabehera, kristauen sinbologiatik onargarri zaiona darabil, gizonaren arimaren garapenean emakumearen betekizunaren gainekoa adibidez, bestelako mitoak balia zitzakeen arren. Raimundo gizon eroria, edo besterenganatua, ezetzaren bidez, Mariaren bidez, helduko da bere burua onartzera, Jainkoa bezalako sortzaile bilakatzera, nahierara kopia, ebaki, itsatsi edo ezaba dezakeen idazlea antzo ordenadorearen aurrean. Raimundoren neskameak ere Maria du izena, esan bezala, baina ama Maria da, Magdalakoa agertu arte Raimundo bizirik atxiki duena, era lauan ordea, igoera eta sakonerarik gabe. Magdalako Maria Silvak bakarrik lor dezake haragizko maitasunaren bitartez Raimundo ilea tindatzetik berrerostea. Lisboako setioaren sasoiaren, Elizaren buruzagiak arras zebiltzan kezkatutik, herri xeheak Jainko epailea baztertu eta Mariarekin baino ez zuelako nahi. Hierarkiak Mariaren aldekoa debekatu egin nuen.

*Lisboako setioaren historia* mamitsu, sentibera eta biribil honetan, Saramagoren maitatzeko ahalmen itzela igartzen da, erruki ezin sakonagoa, kristauena baino zabalagoa, menpekoak, galtzaileak, zakurrak amodioz hartzera daramana, dogmarik gabe, ironiaz mukuru. Orobat, diruari ematen dion garrantzia. Ondorioz, osatu beharra dago apika Jon Alonsok bere itzulpen gogoangarriari paratu hitzaurrean dioena: itzultzea maitasunezko jarduera dela alegia. Gurutzatuek ez zuten onartu portugaldarrei laguntzea Jainkoaren amoreagatik soilik. Maitasunari ederki laguntzen dio ekonomiak.

*Euskaldunon Egunkaria, 2000-07-29*